



UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL N° 011/2017

L A S A R T E - O R I A
KO UDALBATZARRAK 2017 KO
IRAILAREN 29AN EGINDAKO EZ
OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

ACTA DE LA SESIÓN
EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR
EL PLENO MUNICIPAL DEL
AYUNTAMIENTO DE LASARTE-
ORIA EL DÍA **29 DE SEPTIEMBRE DE**
2017.

ETORRITAKOAK:

ASISTENTES:

ALKATE LEHENDAKARIA:
ALCALDE-PRESIDENTE:

D. Jesús Zaballos de Llanos jn. (PSE-EE-PSOE)

ALKATEORDEAK:
TENIENTES DE ALCALDE:

D^a Lourdes Acevedo Beldarrain and. (PSE-EE-PSOE)
D. Agustín Valdivia Calvo jn. (PSE-EE-PSOE)
D^a Maite Iglesias Sánchez and. (PSE-EE-PSOE)
D. Jesús Alonso Ocáriz jn. (PSE-EE-PSOE)
D. José M^a Urdampilleta Zubitur jn. (PSE-EE-PSOE)

ZINEGOTZIAK:
CONCEJALES:

D^a Nuria Fernandez Castrillo and. (PSE-EE-PSOE)
D. Pablo Barrio Ramirez jn (EH BILDU)
D^a Leire Elizegi Beloki and. (EH BILDU)
D. Gorka Lizarraga Erro jn. (EH BILDU)
D^a Kristina Bernal Etxeberria and. (EH BILDU)
D^a Estitxu Alkorta Barragán and (EAJ-PNV)
D. Jon Antxordoki Rekondo jn. (EAJ-PNV)
D. Arkaitz Naya Carrasco jn. (ADLOP)
D. David Ares Rodriguez jn. (ADLOP)
D^a Alicia Garcia Patino and. (ADLOP)

IDAZKARIA:
SECRETARIO:

D. Fco. Xabier A. Egea Jauregi jn.

EZ ETORRIAK:

NO ASISTENTES:

KONTUHARTZAILEA:
INTERVENTOR:

D. Ion Murua Guinea jn.

ZINEGOTZIAK:
CONCEJALES:

D. Alejandro Sáenz Muriel jn. (PP)



Lasarte-Oriako Udaletzeko Batzar-Aretoa, 2017ko IRAILAREN 29ko 18:30 zirelarik, alde zurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Jesús M^a Zaballos de Llanos Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

Udalbatzarra eratzeko "quórum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratu deklaratu du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

1. - EH BILDU, ADLOP, EAJ-PNV UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO ERAKUNDE ADIERAZPENAREN PROPOSAMENA: "KATALUNIAN GERTATUTAKO ATXILOKETA ETA DEMOKRAZIAREN OINARRIZKO PRINTZIBIOEN KONTRA EGINDAKO ERASOAK".

Toma la palabra el Sr. Alcalde para leer la declaración institucional que se transcribe a continuación:

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1.- El Ayuntamiento de Lasarte-Oria muestra su rechazo y alarma por la intervención por la vía de hecho de la autonomía catalana y por la operación policial llevada a cabo por las fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado que ha conllevado registros y detenciones en instalaciones y responsables legítimos de la Generalitat.

2.- El Ayuntamiento de Lasarte-Oria insta al Gobierno de España a desistir en su estrategia represiva de libertades básicas y fundamentales contraria a los principios básicos de la democracia.

3.- El Ayuntamiento de Lasarte-Oria reafirma su compromiso con todos los principios democráticos fundamentales y muestra su solidaridad con el pueblo de Catalunya y todas las personas e instituciones que están padeciendo la represión política y antidemocrática dirigida por el Gobierno de España.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 18:30 horas del día 29 de SEPTIEMBRE de 2017, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Jesús M^a Zaballos de Llanos, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jauregi, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1.- PROPUESTA DE DECLARACION INSTITUCIONAL PRESENTADA POR LOS GRUPOS MUNICIPALES EH BILDU, ADLOP Y EAJ-PNV EN RELACIÓN A: "DETENCIONES Y ATAQUES EN CONTRA DE LOS PRINCIPIOS BÁSICOS DE LA DEMOCRACIA OCURRIDOS EN CATALUÑA".



4.- *El Ayuntamiento de Lasarte-Oria insta a que se posibilite la expresión de la voluntad democrática del pueblo de Catalunya y se respete su decisión.*

5.- *El Ayuntamiento de Lasarte-Oria dará cuenta de la Declaración Institucional acordada a la Generalitat de Cataluña y al Gobierno de Madrid.*

ERAKUNDE ADIERAZPENA

1.- *Lasarte-Oriako Udalak kezka adierazi eta baztertu egiten ditu egitateen bidez Kataluniako autonomian esku hartzeagatik, eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialagatik, zeinaren bidez erregistroak eta atxiloketak egin baitiren Generalitateko instalazioetan bere arduradun legitimoiei.*

2.- *Lasarte-Oriako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala oinarrizko eta funtsezko askatasunen errepresio- estrategia, demokraziaren oinarrizko printzipioen aurkakoa.*

3.- *Lasarte-Oriako Udalak berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Catalunya-ko herriari, eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa - Espainiako Gobernuak gidatutakoa - pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.*

4.- *Lasarte-Oriako Udalak dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratzea eta erabakiak errespetatzera.*

5.- *Lasarte-Oriako Udalak adostutako Adierazpen Instituzionalaren berri emango die Kataluniako Generalitat eta Madrilgo Gobernuari.*

Antxordoki jaunak hartzen du hitza eta esaten du bide bakarra dagoela, elkarrizketan eta akordioan oinarritu behar duen prozesu demokratikoa martxan jartzea. Prozesu hori herriaren borondate legitimoari erantzungo dion lege eta arau esparru berri bat itxuratzeko gai izatea. Gaineratzen du Kataluniak bide hori aukeratu duela, bertako legebiltzarraren onespenearekin, estatuak aldiz indarrez eta inposizioz erantzun diola. Comenta que los problemas políticos se tienen que responder con respuestas políticas, no con respuestas militares o policiales. Azaltzen du Lasarte-Oriako EAJ-PNV Udal Taldetik bere elkartasuna azaldu nahi dietela Kataluniako herriari, bere alderdiak urte askotan egin duen bezala. Elkarrizketa eta akordioa eskatzen ditu Katalanek duten erabakitze eskubideari bide emateko.

Barrio jaunak hartzen du hitza hurrengo argumentatzeko: "*Esan gabe doa, baina ezer baino lehen EHBilduk aldeko bozka emango duela esan nahi dugu. Bat gatoz, goitik behera, aurkeztutako Adierazpenean esaten denarekin, eta horregatik, minimo komun baten bila, sinatu dugu Podemos eta EAJrekin batera. Baina, aldi berean, oso motz geratzen dela esan behar dugu. Gure ustez, une historiko honetan askoz irakurketa sakonagoa egin behar da. Saiatuko gara EHBilduk egiten duen irakurketa azaltzen. Orain Katalunian gertatzen dena ulertzeko, duela 40 urte emandako Trantsizioa hartu behar dugu abiapuntu hurbila. Eta hori, 78ko Trantsizioa, ezin da ulertu 1936ko altxamendu frankista kontutuan hartu gabe. Goazen, beraz, XX.*



mendeko hogeita hamargarren hamarkadara. Frankismoa krisi latzean zegoen kapitalismoan (gogoratu 29ko krak-a) eta ezkerra eta langile mugimenduaren oldarraren aurrean lurjabeek eta oligarkiak ematen duen erantzuna da; Italian faxismoa, Alemanian nazismoa edo Portugalen salazarismoarekin gertatu zen moduan, bakoitzak zituen tokiko ñabardurekin. Espainiako kasuan, nazional-katolizismoaren integritatea eta inperio galdu eta geroko 98ko sindrome hiper-zentralistarekin, adibidez. Frankok irabazi zuen gerra. Eta 40 urte pasa eta gero, zahardadearen poderioz, ohean hil zen, Erregimenaren funtsezkoak ziren zutabeak, oligarkia eta batasun zatiezina, lotuta eta oso ondo lotuta utziz. Horren fruitu da 78ko Espainiako Konstituzioa. Armada eta botere faktikoen tutelapean idatzitako Konstituzioa. Eta ez bakarrik tutelapean, hitzez hitz idatzita 2. Artikuluaren kasua, Espainiako batasun banaezina ezartzen duen horretan, hain zuzen. Konstituzio horrek Frankok inposatutako erregea eta monarkia ezartzen du, ez altxamendua baino lehen herriak aukeratutako errepublika. Konstituzio horrek Frankok inposatutako bandera ezartzen du, ez apurtutako demokrazian zegoena. Konstituzio horrek Frankok inposatutako ereserkia ezartzen du, ez altxamendua baino lehenago zegoena. Konstituzio horrek, Frankok armen indarrez Katalunia eta Euskadiri kendutako gobernuak puzzle autonomikoaren piezatxoak bihurtu zituen, "cafe para todos" deitutako tokomotxoa, edo "aguachirri para todos" hobe esanda. Hori da 78ko Konstituzio ukiezina, militarren mehatxupean eta "plato de lentejas" sindromepean onartuta. Hori da Espainiako Konstituzioak duen zilegitasun demokratikoa: zero patatero. Eta honen guztiaren ondorioz, Armada, guardia zibila edota polizia frankista egun batetik bestera Armada, guardia zibila eta polizia demokratikoa izatera pasa zen inor zesatu gabe. "Tribunal de Orden Público"-a Audientzia Nazionala bilakatu zen gautik goizera. Frankismoaren judikatura guztia judikatura demokratikoa zen bapatean. Movimiento Nacional delakoaren Idazkaria, ilea harrotu gabe, Espainiako Gobernuko presidentea... eta bera bezala beste asko. Hitler imajinatzen dugu halako mausoleo izugarri batean lurperatuta Alemanian? Ba, Franco Valle de los Caidos-en dago, tan pitxi. EH Bilduko alkate bat beharko du Madrilek, Franco bere lekuan jartzeko? Hori da 78ko Trantsizioa. Demokratok horren kontra egon gara beti. Esan nahi duguna da, Espainia estatu demokratikoa dela esaten dutenen aurrean, gure ustez, Espainia Estatu monarkiko, oligarkiko eta aurrekopernikano baino ez da (aurrekopernikano: Koperniko baino lehen eguzkia eta unibertso osoa munduaren bueltan zebiltzabela uste zuten; ba, Espainian okerrago uste dute askok oraindik: ez bakarrik eguzkia eta unibertsoa, mundua bera ere Puerta del Sol-en bueltan dabilela uste dute, unibertsoaren 0 kilometroa). Monarkikoa eta oligarkikoa, eta ondorioz, eta ezinbestez, ustela da Espainia, Bankuek eta IBEX-35ko enpresek politikari ustelen bidez kudeatutako Erresuma. Horixe da, eta ez besterik, azken 40 urteko esperientziak frogatzen duena: ustelkeria jaun eta jabe izan da Espainian. Eta ez da kontu puntuala, estrukturala da: kudeaketan egon diren guzti-guzti-guztiak daude zikinduta, %3-ren kultura. PPko kasuak, Barcenak, Gurtel, Púnica... gaurkotasan handikoak eta kontaezinak dira, PPko ministro gutxi libratzen dira, momentuz. Baina ez ditzagun ahaztu besteak. PSOEren kasuan, Flick, Filesa, Juan Guerra, Urralburu, Roldan, Ibercorp, Mariano Rubio, Kío, AVE, EREak.... Katalunian, Jordi Pujol, Casinos kasua... batzuk aipatzearen. Nafarroan FASatik hasita Caja Navarra arte, zer ez dugu ikusi?. Eta hemen? Hemen gogora dezagun duela hamaika urte, inoiz gezurtatu ez den autobiografian, zer esaten zuen Xabier Arzallusek: "Empiezas a tener la posibilidad de que te den dinero. Ante lo cual se te abren dos posibilidades. La primera es exigir que te paguen un porcentaje sobre el precio total del encargo: te concedo esta obra, o te recalifico este terreno, o te encargo la fabricación y estos uniformes, o te asigno la contrata de tal o de cual, si tú pagas a mi partido el 4, el 5, el 8 ó el 10%. La segunda es: tú atribuyes estos trabajos conforme a la ley, por las vías de adjudicación establecidas, pero no ocultas a los empresarios que tu partido tiene necesidades que



cubre con mucha dificultad". Gogora dezagun duela pare bat urteko beste bat. Kargua uztean, zera esan zuen Bizkaiko Ahalduen Nagusiak: "Muchos pueden estar tranquilos, porque nunca escribiré mis memorias. Memorias en las que podrían aparecer personas con sus grandezas y miserias. Desgraciadamente habría muchas miserias. Los que decían una cosa en privado, y otra en público; los que mentían sabiendo que mentían; los que sabían que nosotros teníamos información que no podíamos utilizar y jugaban con ello; los que decían una cosa y la contraria sin pestañear; los que hacían pagos con fajos de billetes sin demostrar su origen; los que tenían grandes sumas de dinero en paraísos fiscales y cuyos nombres no salen a la luz; los que han repatriado dinero de origen desconocido y que van por la calle como unos señores e incluso se permiten decimos a los demás lo que debemos hacer. A todos les digo que pueden estar tranquilos". Hori esan eta berehala, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakari jarri zuten PNVk eta PSOEk. Atera kontu. Hauxe da testuingurua Katalunian gertatzen ari dena ulertzeko: Espainia Estatu monarkiko, oligarkiko eta aurrekopernikano da, eta ondorioz, eta ezinbestez, ustela eta banaezina. Ongi. Goazen harira, orduan. Non dago koxka? Gu demokratak ala legekratek garen. Hor dago koxka. Herriak agindu, ala legeak agindu, that is the question. Kataluniako Erreferenduma deskalifikatzeko, Raxoi eta besteak "legala ez dena ez da demokratikoa" matraka ari da behin eta berriz errepikatzen. Unionisten ustez, Legea = Demokrazia da ekuazioa. Horren arabera, batzuentzat betidanik demokraziaren eredia izan den EEBBetan, beltzen segregazioa guztiz demokratikoa zen, legezkoa zen eta, Luther King eta Malcom X etorri arte. Antzeko adibideak jar daitezke langileen, emakumeen, homosexualeen eta abarren eskubideen urraketekin. Ustezko demokrazia batean legezkoan ziren, beraz, demokratikoak ziren. Hitler bera demokrata litzateke, demokrazia formalaren legeen bidez iritsi baitzen gobernura. Arrazoi berberaz, Erdogan demokrata litzateke. Portzierto, ze kasualidadea Turkia eta Espainia Europaren atea izatea! Geoestrategiak asko laguntzen du Frankismoaren iraupena eta gaurko Turkia eta Espainiaren bilakaera ulertzeko. Baina, tira, ez da gaurko gaia. Gaurko gaia da Demokraziak demos-a hartzen duela oinarri, herria, herriaren gobernua ez legearen gobernua, bestela legekrazia baino ez litzateke. Eta legea gizartean momentuan dagoen indar korrelazioaren kristalizazioa baino ez da. Espainiako legeak 78ko Konstituzioa du iturri. Eta hori da, orain ere, legekratek defendatzen dutena. Demokratok, aldiz, horren kontra egon gara beti, eta gaur ere. 78ko Trantsizio malapartatuarekin behingoz apurtzeko dator Kataluniako prozesua. Une honetan, PNVri esan nahi diogu PP ustelarekin dilista plater baten truke eta 78ko Trantsizioari amasa ematen diona Euskal Herri duin eta libre baten kaltetan ari dela. Une honetan, Castelaok esandakoa gogoratu nahi diogu Espainiako ezkerari: "Para que España pueda ser roja, primero ha de estar rota". Hau da, Espainia duin bat eraiki ahal izateko, Kataluniako eta Euskal Errepublikak duinak sortu beharko dira aurretik. Urriaren 1eko erreferenduma da, gaur eta hemen, posiblea den ariketa demokratikoena: demos-ari, herriari, hitza ematea. Erreferendum = Demokrazia da benetako ekuazioa, beraz, eta erabateko legitimitatea du Kataluniako prozesuak. Horregatik guztiarengatik, erabateko babesa adierazten diogu Kataluniako Parlamentuak burutu nahi duen erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako heritarren borondatea bada tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko. Modu berean, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politiko guztien alde egiteko konpromisoa hartzen dugu. Gaur eta hemen, Katalunian o povo é quem mais ordena, Grandolan bezala. Zorionak. Visca Katalunia!"



Toma la palabra el Sr. Naya para leer la siguiente argumentación: "Estamos asistiendo a un choque de trenes. Dos trenes cargados de vagones repletos de corrupción. Tenemos, por un lado, a un gobierno estatal que está demostrando, con su cerrazón y su constante negativa al diálogo, una auténtica incapacidad de gestión y resolución de conflictos. Y por otro lado, a un gobierno autonómico, que para desviar la atención de la ciudadanía a sus trapos sucios, entre otras cuestiones, inició un proceso por el cual, se pretendía incrementar su nivel de autonomía, y ahora se ha convertido en un proceso unilateral de independencia. Lo más curioso, es que ambos líderes, fieles a su actual discurso, actúan de distinta forma a como lo hacían en el pasado, bien por este mismo tema, bien por temas similares, y tenemos: Al señor Puigdemont, que en 2014 votó en contra del referéndum del Kurdistan y del Sáhara. Y al señor Rajoy, que en una de sus comparecencias en el congreso de los diputados en el año 2006, en la oposición, y refiriéndose al Estatut de Cataluña decía: "Solicito formalmente la celebración de un referéndum. Confío en que el gobierno sepa estar a la altura de sus responsabilidades. Cuando los ciudadanos quieren un referéndum porque quieren opinar, la respuesta no puede ser: tranquilos, no pasa nada, confíen en mí. ¿Qué broma es esta? No estamos al menos todavía en un régimen populista. Señorías, ante una demanda tan legítima, tan en razón, con un respaldo tan vigoroso, no podemos ni tan si quiera imaginar que un gobierno democrático se oponga y la rechace. Derribaría por los suelos todas sus proclamas sobre el diálogo. Esta es la voz de los ciudadanos señorías. Es muy fácil escucharla, y conviene hacerlo." Es absolutamente lamentable, es un secuestro de la democracia. ¿En manos de quién estamos? Desde nuestro grupo, siempre hemos defendido que cuando hay una mayoría social que quiere votar sobre un tema en cuestión, la política debería habilitar los mecanismos necesarios para poder llevar a cabo dicha votación. ¿Qué no está recogido en la Constitución Española? Pues se modifica la constitución, como se ha hecho en otras ocasiones, como con el artículo 135. Ahora bien, también es muy importante que se pacten los términos y se expliquen las repercusiones del referéndum en cuestión, como por ejemplo: En cuanto a los términos: - Quién tiene derecho a votar; - El porcentaje mínimo de participación; - El porcentaje necesario que debe tener la opción ganadora para ser vinculante; - El tipo de consulta a hacer: No tiene por qué haber una única pregunta a la que haya que responder sí o no. En cuanto a las repercusiones, es importante no engañar ni manipular a la ciudadanía. La gente tiene derecho a saber exactamente qué conllevaría la independencia: - ¿Habrá una frontera? ¿Aduana?; - ¿Cataluña seguiría perteneciendo a la unión europea? La respuesta es no. Automáticamente dejarían de aplicarse todas las políticas comunitarias en Cataluña. Y si con todo y con ello, la sociedad Catalana decide en un referéndum pactado y legal, que quiere la independencia, eso debería ser sagrado." Para terminar vuelve a insistir y pide más dialogo y más democracia.

Bozkatzera jarrita erakunde adierazpena, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko bederatzi botorekin (4 EH BILDU, 3 ADLOP, 2 EAJ-PNV) eta kontrako zazpi botorekin (7 PSE-EE-PSOE), ONARTU egiten du hura.

Sometida a votación la declaración institucional, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con nueve votos a favor (4 EH BILDU, 3 ADLOP, 2 EAJ-PNV) y siete en contra (7 PSE-EE-PSOE), APRUEBA la misma.



Toma la palabra la Sra. Acevedo y dice que los acontecimientos que se acumulan en los últimos días, que nadie dice querer, y de los que nadie quiere responsabilizarse, les obligan a una reflexión colectiva a la que los socialistas quieren contribuir. Explica que la relación entre Cataluña y el resto de España es una cuestión no resuelta desde el año 2010, ya que el Tribunal Constitucional alteró el estatuto votado por los catalanes en el año 2006, y la actitud temeraria del Partido Popular contribuyó de forma decisiva a dinamitar un acuerdo razonable. Desde entonces los Gobiernos de Cataluña y España han sido incapaces de establecer un dialogo serio, para encarrilar esta cuestión. Comenta que el gobierno catalán y la mayoría independentista que le apoya, han optado por una vía unilateral y a su juicio ilegal. Añade que es necesario recordar que se han vulnerado el Reglamento del Parlamento, los derechos de la oposición, el Estatuto de Cataluña, y la Constitución Española. Sigue diciendo que esta vía unilateral e ilegal está condenada al fracaso, y comporta la actuación de los poderes del estado para evitar la celebración de un referéndum, que está considerado ilegal por los letrados del Parlamento de Cataluña, el Consejo de Garantías Estatutarias de Cataluña, el Tribunal Constitucional, y la Comisión de Venecia del Consejo de Europa. Dice que los socialistas siempre han alertado contra el choque de trenes que otros minimizaban, y han defendido siempre otro camino, el camino del dialogo, la negociación y el pacto. Desgraciadamente su planteamiento no ha sido atendido, y el choque de trenes del que advertían ha llegado. Explica que el dialogo político es la única vía que puede permitir salir de esta callejón sin salida, para que Cataluña gane en autogobierno y financiación, y para que España se transforme en un estado federal. Añade que el pacto que proponen debería culminar en una reforma constitucional federal, que fuera sometida al voto de la ciudadanía. Los socialistas han recogido en la Declaración de Barcelona los elementos esenciales de su propuesta, y han impulsado en el Congreso de los Diputados, la creación de una Comisión Parlamentaria para abordar estas cuestiones. Continúa diciendo que en este momento llaman a los Gobiernos de Cataluña y España a detener una escalada que les lleva a todos al desastre. La solución al problema de la relación entre Cataluña y el resto de España, no vendrá de la mano de los tribunales, pero el respeto a la legalidad nos obliga a todos. Comenta que la determinación del estado de impedir la celebración de un referéndum ilegal, no puede implicar en ningún caso, limitar el debate político y los derechos consagrados en la constitución. Por todo ello, piden al Gobierno de Cataluña que renuncie a la organización de un referéndum ilegal, y que esta renuncia haga posible la apertura inmediata de un proceso de diálogo y negociación al que estén convocadas todas las fuerzas políticas catalanas y españolas. También piden al Gobierno de España que dé una respuesta política a un problema político, y que no pretenda que la única respuesta del estado a este problema la dé el Poder Judicial. Añade que los Presidentes Puigdemont y Rajoy deben hacer hoy lo que hace meses deberían haber hecho, hablar, hablar y hablar. Sigue diciendo que los socialistas están comprometidos a contribuir para encontrar una solución democrática y acordada a los problemas planteados, y quieren emplazar a todas las instituciones y partidos a hacer contribuciones positivas en esta dirección. Llamam a la serenidad y a la calma, ya que las instituciones democráticas tienen la obligación de encontrar una salida al conflicto abierto que viven, y que no deben trasladar a la ciudadanía la solución del problema. Los y las catalanas tienen garantizados sus derechos, y Cataluña como país su autonomía, y solo el empecinamiento en una vía unilateral e ilegal puede ponerlos en peligro. Reitera que llaman a la responsabilidad de los Gobiernos de Cataluña y España para iniciar de forma inmediata el dialogo, la única vía, la solución. Por último, muestran su solidaridad con todos los cargos políticos, los más de 120 Alcaldes del Partido Socialista de Cataluña, que están defendiendo la legalidad en Cataluña, y que se niegan a ceder ante provocaciones e insultos.



Eta beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 18:54 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 18:54 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.